

KOSTU EGITURA

Gure proiektua aurrera eramateko kostuak ondorengoak dira.

Alde batetik, txamarren kostua dugu. Berogailua txertatuta duten txamarrak erosi beharko genituzke bankuari kreditu bat eskatuz. Txamarra bakoitzak 35€ balio dituenek, gutxi gora behera eta hasiera batean negozioa hasteko 40 txamarra erosiko ditugunez, 1.400€-ko gastua egin beharko dugu txamarretan, baina, hala ere, kreditu handiago bat eskatuko genuke badaezpada ere. Kostu hau finkoa izango da.

Txamarrekin arazorik egongo balitz, mailegatutako diruarekin konponduko genuke eta berririk erosi beharrezkoa balitz. Etekinak eduki ahala, aurretik eginiko inbertsioa berreskuratzeko dirua lortuko dugu eta, horrela, lehenbailehen eskatutako mailegua itzultzeko gai izango gara.

Negozioa arrakastatsua izango balitz eta bezero gehiago izango bagenu, txamarra gehiago erosiko genituzke lortutako diruarekin. Kostu hau aldakorra bihurtuko da, salmenta-bolumenaren arabera izango baita, izan ere, gero eta bezero gehiago izan, txamarra gehiago erosteko premia izango dugu.

Txamarrak kargatzeko elektrizitatearen kostua gure bezeroak diren enpresen esku geratuko da. Eta txamarrak guk dugun lokal batean gordeko genituzke, beraz, txamarrak gordetzeak ez digu kostu gehigarririk ekarriko.